

ADENDA DE AUTORIZACIÓN PARA RECOGIDA DE LIBROS EN 3^{as} PERSONAS



Yo, _____, con DNI _____ padre/madre del alumno/a
_____, que cursará (curso académico) _____ en el

2019/20, autorizo a _____ a que recoja los libros solicitados al
Colegio Azkorri en mi nombre.

Y para que así conste, entrego esta adenda con mi firma: _____

Guraso Agurgarriak,

Gutun hau, hurrengo ikasturterako **liburuak Azkorri Ikastetxeko Liburu Kudeaketa Taldearen bitartez BAI eskatu dituzuenei bakarrik dago zuzenduta.**

Behin zeuen formularioak aztertuta eta bideratuta, eskaera guztiak egin ditugu eta argialetxeen materialak jaso, alderatu eta antolatu egin ditugu jadanik. Beraz, **bagau de prest, eskaera orrien arabera, koaderno eta liburu guztiak zeuei emateko.**

Materialaren banaketa, **4. Pabeloiko Liburutegian** izango da, Jantokiaren alboan. Bertan, Liburu Kudeaketa Taldekoak egingo dizuegu harrera.

Hauexek izango dira eskatutako liburuak hartzera etortzeko datak eta ordutegiak:

- **Ekainaren 13an osteguna / 16.45tik 19:15k arte (Batzar Orokorrekin bat eginez)**
- **Ekainaren 18an asteartea / 16.45tik 20:00ak arte**
- **Ekainaren 19an asteazkena / 16.45tik 20:00ak arte (LHko familiekin bilerekin bat eginez)**

- **Ekainaren 24an astelehena / 08.15tik 09.30ak arte**
- **Ekainaren 25an asteartea / 08.15tik 09.30ak arte**

- **DBH & BATXILERGOKO IKASLEAK**
 - **Ekainaren 13an / 13:30 DBH 3 & 4**
 - **Ekainaren 14ean / 13:45 DBH 1 & 2**
 - **Ekainaren 20 & 21ean / 13:00 BATXILERGOA ta DBH falta diren ikasleok**

Baiezatzeko, dena den, komenigarri deritzogu **galdetegia egindakoan jaso zenuten kopia inprimatuta ekartzeari**, edo zuek egindako zerrenda bat, hortxe agertzen baitzaizue zuoi ere, zeintzuk liburu eskatu zenituzten eta zeintzuk ez.

Prozesua errazten saiatuko gara: heltzean, **identifikatu** behar izango zarete eta **erregistro orri** batean **sinatuko**. Liburuak emandakoan, garraioa errazteko, geuk emandako poltsetan eraman ahal izango dituzue.

Aldez aurretik ez eskatutako liburuak ezin izango dizkizuegu eman inondik inora, galdetegietan agertzen zitzazkigun kopuru zehatzaren arabera eskatu ditugulako, eta ez daukagulako azken orduko eskaerei erantzuteko gehigarriarik. Hemendik aurrera liburuak nahi dituzuenek, zeuen kabuz lortu behar izango dituzue. **Liburuen zerrendak, WEB orrialdean utziko ditugu ikusgai, atal pribatuan (LIBURUAK 2019/20)**

Liburuak hartzera ezin izango bazinate etorri, baimendutako beste norbaiten esku utzi dezakezue ardura hau. Horretarako, agiri honen bukaerean atzikitzen dizuegun **adenda bete eta sinatu** behar izango zenukete. **DBHko ikasleak ere**, euren eskaera jasotzera pasa daitezke. Hauek, **ekainaren 13an, 14an, 20an eta 21an** egin dezakete jasoketa, **iragarritako orduetan**, edota liburuen arduradunekin adostutako bestelako ordu batetan.

Beti bezala, helduarazi nahi dizuegu berriro prozesuarekiko zalantzarik badaukazue, jar zaitezketela gurekin kontaktuan liburuak@azkorri.org helbidearan bitartez.

Berriro geure eskerrak eman nahi dizkizuegu zeuen partehartze eta laguntzagatik.

Agur bero bat

Liburu Kudeaketa Taldea

LIBURUAK JASOTZEKO BESTE EDONORENTZAKO BAIMENTZEKO ORRIA



Nik, _____, _____ NAN zenbakidunak, 2019/20an

_____ mailan arituko den _____

ikaslearen aita / ama, _____ ri baimentzen diot Azkorri Ikastetxean eskatu

ditudan liburuak hartzeko.

Eta horrela izan dadin, adenda hau sinatzen dut _____